Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko apirilean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko apirilean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 672 izan da, martxoan baino 120 gehiago eta joan den urteko apirilean baino 452 gehiago. Egunean bataz bestez 35 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 12 eskaintza gehiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako pandemia kontuan izan gabe.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko apirilean 111 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 275 Gipuzkoan eta 286 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 42,6 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 40,9 Gipuzkoan eta % 16,5 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 14,4 hazi dira eskaintzak (14 eskaintza gehiago), Gipuzkoan hazkundea % 34,2koa izan da (70 eskaintza gehiago) eta, azkenik, Bizkaian % 14,4koa izan da hazkundea (36 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 78 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 236,4ko hazkundea, Gipuzkoan % 266,7 hazi dira (200 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 155,4 hazi dira (174 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 19,5azerbitzuen lanbide-profilerako erregistratu dira (131 eskaintza); eta, %18,3a, tekniko profesional profilerako (123eskaintza). Industriako langileen, laguntza teknikarien eta kualifikatu gabeko profilen lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 114, 90 eta 86 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 4 eta 10 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, ondorengoa izan da bilakaera: zerbitzuetako langileen profilekoak eta operadoreenak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (30 eskaintza gehiago bi kasuetan), eta azken hau izan da balore erlatiboetan gehien hazi dena (% 96,8ko hazkundea). Beste muturrean aurkitzen dira zuzendarien profileko eskaintzak, murriztu diren bakarrak izan dira (2 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira profila edozein dela ere: balore absolutuetan, tekniko profesional profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (88 eskaintza gehiago, % 251,4ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, operadoreenak izan dira (% 369,2ko hazkundea, 48 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 13,8k kontratu mugagabea eskaini dute; % 85,1ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 1,0ak, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 93 izan dira, aurreko hilabetean baino 6 eskaintza gehiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 111 eskaintza gehiago erregistratu dira: 572 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 24,1ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko apirilean 7 izan dira, aurreko hilean baino 3 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 71 gehiago izan dira (% 322,7ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 193,3 hazi dira; 377 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, 4 gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021eko apirilean erregistratutako lan-eskaintzen 2 herenek (423 eskaintza, %63,0) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 21,7k (146 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 3,3ko pisua dute (22 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,3koa da (2 eskaintza).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira. Gehien murriztu direnak, balio absolutuetan, 6 eta 12 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (51 eskaintza gehiago, % 53,4ko hazkundea); hauei 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen duten eskaintzak jarraitzen diete (44 eskaintza gehiago, % 11,6ko hazkundea).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, hau izan da bilakaera: 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira hazkunde handiena izan dutenak balio absolutuetan (272 eskaintza gehiago, % 180,1eko hazkundea). Aldi berean, balio erlatiboetan, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak (% 340,0ko hazkundea, 17 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 16,4k zehazten du datu hori (672 eskaintzetatik 110). 110 eskaintza horietatik, 81 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 29k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 18 gehiago izan dira otsailarekin alderatuz, hau da, % 28,6 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 14 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 93,3koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 66 gehiago izan dira (% 440,0ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 22 eskaintzakoa izan da hazkundea (% 314,3ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 15 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 8 eskaintza gehiago, eta 2020ko apirilean baino 14 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 81,9k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 672 eskaintzetatik 122k soilik zehaztu dute.



122 eskaintza horietatik, 45ek LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 36,9); eta beste 38k unibertsitateko ikasketak (% 31,1). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 29 eskaintzekin (% 23,8). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (10 eskaintza, % 8,2).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, hurrengoa da bilakaera: oinarrizko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira murriztu diren bakarrak (2 eskaintza gutxiago). Beste muturrean LHko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, gehien hazi direnak balore absolutuetan (12 eskaintza gehiago, % 36,4ko hazkundea), eta Batxilergoko ikasketak, gehin hazi direnak balore erlatiboetan (% 150,0ko hazkundea, 6 eskaintza gehiago).

2020ko apirilarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira: unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan (% 442,9ko hazkundea, 31 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena merkataritza izan dira; honen pisua eskaintza guztien % 17,1ekoa izan da (115 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, manufaktura industria eta eraikuntz izan dira, eskaintzen % 14,4 eta % 9,7ko pisuarekin (97 eta 65 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz bilakaera hau izan da: gehien murriztu direnak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, osasun jardueretako eskaintza izan dira (12 eskaintza gutxiago, % 18,8ko murrizketa); aldiz, beste muturrean merkataritzako eskaintzak daude, gehien hazi direnak izan baitira balore absolutuetan (43 eskaintza gehiago, % 59,7ko hazkundea), eta garraioa eta biltegiratzea jarduerako eskaintzak, gehien hazi direnak balore erlatiboetan (% 172,2ko hazkundea, 19 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ondorengoa izan da bilakaera: bilakaera okerrena pairatu duten eskaintzak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, osasun jardueretakoak izan dira (9 eskaintza gutxiago, % 14,8ko murrizketa). Beste muturrean, merkataritzako eskaintzak, balore absolutuetan gehien hazi direnak (93 eskaintza gehiago, % 422,7ko hazkundea) eta jarduera artistikoetako eskaintzak, balore erlatiboetan gehien hazi direnak, daude (% 1200,0ko hazkundea, 12 eskaintza gehiago).